

ORDENANTZEA, HERRITARREI EUSKERA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK EMOTEARI BURUZKOA

HITZAURREA

Udalak, udalean ezeze, udalerriko gizarte sektore guztietan be euskeraz normaltasun osoz biziteko aukerak zabaltzeko ahaleginak bultzatu gura dauz, euskerearen normalizazioa helburu hartuta, Euskerearen Erabilera arautzen dauen 10/82 Legeak agindutakoa betez, eta lege hori garatzeko Eusko Jaurlaritzeak emondako dekretuetan eta Bermeoko Udalak harrezkero ontzat hartu dauzan ordenantzetan eta planetan jaso dan legez. Hain zuzen be, behar diran hizkuntza-politikako neurriak erabagiz eta bultzatuz eta euskerea erabat berreskuatzeko hizkuntzearen aldeko urratsak areagotuz, euskeraz bizi gura daben bermeotarrei horretarako aukerea eskaini gura jake.

Ildo horretan, Bermeoko Udala ohartu da hizkuntzearen normalizaziorako oso garrantzitsua dala udalerriko herritarrek euskerea ikasi edo hobetzeko ikasketak egitea.

Hori guztia kontuan izanda, euskalduntze saiakera horretan dagozan herritarrei lagundu eta euskerearen erabilera areagotu gurean, besteak beste, euskera ikastaroak egiten dabean herritarrentzako laguntza sistema sustatu gura dau Bermeoko Udalak.

Euskalduntze prozesurako baliabideak emoteko zeregin horretan, ordenantza honek jasoten dauenez, Udalaren dirulaguntza sistema urte osoko nahiz udako ikastaroak egiten dabezanei zuzenduta dago.

1. ARTIKULUA: XEDEA.

Euskerea Euskal Herriko hizkuntza nazionala dan ezker, Bermeoko udalerriko eta Udaleko hizkuntzea da.

Eta halan izanik, Bermeo euskalduntzeko asmoz, Bermeoko Udalak, euskerea ikasten edo hobetzen dabilzan herritarrei dirulaguntza publikoak emotea erabagi dau, ordenantza honetan zehazten diran baldintzak beteten diran heinean.

2. ARTIKULUA: ONURADUNAK.

Eskatzaileak gitxienez urtebeteko antxinatasunagaz Bermeon erroldatuta dagozan 16 urtetik gorako herritarrak izango dira.

3. ARTIKULUA: BETEBEHARRAK.

1. Eskatzaileak Bermeon erroldatuta egon beharko dau ikastaroa egiten dauen bitartean.

2. Eskaria aurkeztu orduko, eskatzaileak, matrikulea ordainduta edukiko dau.

3. Dirulaguntzea jaso ahal izateko gitxienez %70eko asistentzia egiaztatu beharko dau eskatzaileak.

4. Eskatzaileak izena emon dauen euskaltegia amaitu beharko dau ikastaroa.

5. Onuradunak dirulaguntzea eskatzen dauen urratserako aurretik beste dirulaguntzarik jaso ez izatea.

6. Honeek dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk emoten dauzan dirulaguntzakaz, baina, dirulaguntza danen artean ezin izango da matrikulearen zenbatekoa baino gehiago jaso.

Udalaren dirulaguntza jasoteko eskubiderik ez dabe izango azterketa gainditzeagaitik HABEK emoten dauzan dirulaguntzak jasoteko eskubidea daukienez.

7. Dirulaguntzea, ikastaroaren matrikulea ordaintzen laguntzeko da eta ez, ostera, ikastaroen egoitza-gastuak eta garraio-gastuak ordaintzen laguntzeko.

4. ARTIKULUA: IKASTARO MOETAK.

1. Diruz lagunduko dira ikasturte osoko ikastaroak, hala nola: euskalduntze ikastaroak, alfabetatze nahiz sakontze ikastaroak eta alfabetatze teknikoko ikastaroak



2. Barnetegian egindako euskalduntze zein alfabetatze ikastaroek be jasoko dabe laguntzea, aurreko artikuluan aitaturako egoitza eta garraio-gastuak izan ezik.

3. Era berean lagunduko dira euskaltegian, barnetegian, Euskal Herriko Unibertsitatean edota Udako Euskal Unibertsitatean egindako udako ikastaroak.

4. Honeetatik dirulaguntzetatik kanpo geratzen dira:

- a) Euskeraz egindako ikasketak.
- b) Norbere lanbiderako hizkuntza eskakizuna prestetako ikastaroak.

5. ARTIKULUA: LAGUNTZA MOETEA.

Ordenantza honetako betebeharrak bete ezker, gehienez, matrikulearen zenbatekoaren %50 lagunduko da diruz.

6. ARTIKULUA: ESKARIAK AURKEZTEA.

- 1. Eskari-orria beteko da Bermeoko Udaleko alkateari zuzenduta.
- 2. Eskariagaz batera aurkeztu beharreko agiriak:
 - a) NAN, ENA edo EHNaren fotokopia.
 - b) Ikastaroaren matrikulearen ordainagiria.
- 3. Hona eskariak aurkezteko epea:
 - a) Neguko ikastaroen kasuan, bagilaren 30a baino lehen.
 - b) Udako ikastaroen kasuan, irailaren 30a baino lehen.

7. ARTIKULUA: ESKARIAK ONESTEA.

Behin eskariak aurkezteko epea amaituta, Euskera batzordeak eskariak aztertuko dauz eta proposamena egingo deutso Tokiko Gobernu Batzarrari, erabagi daian.

8. ARTIKULUA: ORDENANTZEA INTERPRETETEA.

Ordenantza hau interpretatu ahal izateko, eta aurreikusita ez dagozan kasuetarako, Bermeoko Udalak eukiko dau eskariaren ganeko erispena emoteko ahalmena.



9. ARTIKULUA: AURREKONTUA.

Ordenantza honetan araututako dirulaguntzei aurre egiteko, urtero, Euskera Sailaren aurrekontuan diru-kopuru bat finkatuko da, dirulaguntzen gehienezko mugea zehaztuta.

10. ARTIKULUA: ORDENANTZEA EZ BETETEARREN ONDORIOAK.

Eskatzaileak, ordenantza honetan zehaztutako baldintzaren bat beteko ez baleu, dirulaguntza jasoteko eskubidea galtzeaz ganera, jasotako diru-kopurua itzuli beharko leuskio Udalari.

INDAR HARTZEA: Ordenantza hau indarrean jarriko da bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan egunean eta indarrean jarraituko dau espreski aldatu edo indar barik itxi arte.

2005EKO URRIAREN 13AN ARGITARATUTA

